BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

5902

AGINDUA, 2011ko azaroaren 10ekoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, sail honek 2010-2011 epealdian homologatutako eta Lehen Hezkuntzako irakasleentzako den espezializazio-ikastaro baten ezaugarriak eta berau gainditu dutenen zerrenda argitara emateko dena.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuak 1998ko ekainaren 12an emandako Aginduaren bidez (uztailaren 24ko EHAA), Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko irakasleentzako prestakuntza-ikastaroak homologatzeko prozedura ezarri zen; ikastaro horien artean zeuden Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen zikloko irakasleak espezializatzeko ikastaroak.

Aipatutakoen moduko ikastaro bat homologatu denez, egoki da haren ezaugarriak eta berau gainditu dutenen zerrenda argitaratzea, betiere bidezko ondorioak izan ditzan.

Horregatik, honako hau

XEDATU DUT:

1. artikulua.– Argitara ematea Pedagogia Terapeutikoko espezializazio-ikastaroa, Hezkuntzako sailburuordeak 2010eko maiatzaren 18an emandako Ebazpenaren bidez homologatua– homologatu egin zaiela Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen zikloko maisu-maistra eta irakasleei; era berean, argitara ematen da zein parte-hartzailek gainditu duen eta betetzen dituen Hezkuntza eta Zientziako Ministerioak 1996ko urtarrilaren 11n emandako Aginduan adierazitako baldintzak (23ko BOE). Agindu horren bitartez, espezializazio-ikastaroak homologatzen dira Maisu-maistren Kidegoko irakasle funtzionarioentzat eta Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Hezkuntza Bereziko eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxe pribatuetako irakasleentzat (ikus I. eranskina).

2. artikulua.– Agindu honek EHAAn argitaratu eta biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko azaroaren 10a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.

I. ERANSKINA

HOMOLOGATUTAKO ESPEZIALIZAZIO-IKASTAROAK

1068EPT212 IKASTAROA: PEDAGOGIA TERAPEUTIKOKO ESPEZIALIZAZIO-IKASTAROA

(FICE-DEUSTO) Deustuko Unibertsitateko Hezkuntza Zientzien eta Filosofía Fakultateak emandakoa.

2010-10-01ean hasi eta 2011-06-30ean amaitua.

Hezkuntzako sailburuordeak 2010eko maiatzaren 18an emandako Ebazpenaz homologatua 1068EPT212 homologazio-kodea.

Gainditu dutenen zerrenda:

NAN	ABIZENAK	IZENA
30693770	Aldamizetxebarria Arego	Andoni
78947150	Baliño Arguinzona	Saioa
78947141	Bilbao Bueno	Ainhoa
72256480	Domingo de la Sierra	Ana María
16077549	Emaldi Pereira	Ane Garazi
78899704	García Orejas	Ainhoa
44972496	Loizaga Peña	Nerea
14593409	Pecharroman Gogenola	M. José
45669576	Ramos Elorza	Beñat
14262477	Solana Núñez	Mónica
30620037	Trueba Caño	María Asunción